
EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKA-SISTEMA

2003ko otsailaren 3an Gobernu-Batzordeak onartua

Euskara ikasi nahi duten helduentzako beka ematen ditu Arrasateko Udalak. Urteko edozein garaitan eskatu daiteke beka, beti ere egindako ikastaroa amaitu ondoren. Beka lortzeko, ordea, baldintza batzuk bete behar ditu eskatzaileak:

Bete beharreko baldintzak:

- Arrasaten erroldatuta egotea.
- Baldintza akademikoei dagokienez, beka lortu ahal izateko ikasleak gutxienez %90eko asistentzia eta emandako urratsetatik erdiak gaindituak izan behar ditu.
- Baldintza ekonomikoei dagokienez, berriz, honako baremo hauek aplikatuko dira:

Senide-kopurua	2002 urtea
1	11.519 €
2	15.361 €
3	19.474 €
4	24.512 €
5	30.158 €
6	33.530 €
7	36.545 €
8	41.628 €

Euskara ikasteko beka sistemari begira, honela dago osatuta famili unitatea:

- Gurasoekin bizi diren beka eskatzaileei dagokionez, 30 urte bete arte famili unitateko kideetat hartuko ditu Udalak.
- Gurasoekin bizi diren 30 urtetik gorako beka eskatzaileak, ordea, kide bakarreko famili unitateetat hartuko ditu Udalak.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- Matrikularen ordainagiria.

- Euskaltegiaren agiria, eskatzailearen asistentzia (%tan), ikastaroaren ordu teorikoak eta ikasleak gainditutako urrats-kopurua, adieraziko dituen.
- Familia osatzen duten senide guztien errentaren gaineko aitortpenaren kopia bat.
- Bizikidetzako (konbibentziako) agiria.
- Gainera, lan egiten ez duen 18 urtetik gorako seniderik izanez gero:
 - ✓ Senidea ikaslea bada, matrikula edo ikasle agiria.
 - ✓ Senidea langabezian badago, INEMek emandako agiria. Eskatzailea euskara ikasten aritu zen aldiari senidea lanik gabe zegoela eta langabeziako subsidiarik kobratu zuen ala ez eta, kobratzekotan, zenbat kobratu zuen adierazi beharko du agiriak.

Matrikularen zenbatekoa:

Ikasleak ordaindutako matrikularen prezio osoa jasoko du goiko baldintzak betez gero. Barnetegi ikastaroen kasuan, matrikularen prezioaren erdia izango da bekaren zenbatekoa.